



Usurbilgo Udala

2021EKO AZAROAREN 25EAN EGINDAKO OHIKO UDALBATZAREN BILKURAKO AKTA

BERTARATUAK

Alkate-Lehendakaria

Agurtzane Solaberrieta Mesa

Zinegotziak

Beñat Larrañaga Urdanpilleta
Lur Etxeberria Gurrutxaga
Joxe Mari Iribar Zapirain
Ainhoa Arrozpide Landa
Oskar Santamaria Pikabea
Itziar Basterrika Unanue
Josune Urkola Larrarte
Mirari Azurmendi Sorazu
Carlos Pérez Fraisoli
Francisco José (Patxi) Suárez Pérez

Idazkaria: Garazi Etxeberria San Miguel

Kontuhartzailea: Xabier Olano Jauregi

Ez dira bertaratu: Luken Arkarazo Silva eta Andoni Atxega San Sebastian.

Arratsaldeko 18:00etan batzarrari hasiera eman zaio.

Usurbilen, 2021eko azaroaren 25ean arratsaldeko 18:00etan, Udaletxeko Pleno Aretoan, Usurbilgo Udaleko ohiko Udalbatza Plenoa egiteko goian adierazten direnak lehen deialdian bildu dira.

Bertaratuak bezala goian agertzen diren zinegotziak batzarkide direlarik, Agurtzane Solaberrieta Mesa izan da Batzarburua.

Alkateak adierazi du Luken eta Andoni falta direla eta Luken ez dela etorri konfinatuta dagoelako. Lehen idazkariarekin hizketan egon dela dio horrelako kasuetan eta gaur egun ezarrita dauden osasun neurrien ondorioz zinegotzi batek ezin badu plenora etorri zer egin daitekeen, ea telematikoki parte hartu dezakeen, zinegotzieren eskubidea eta betebeharra baita plenoetara etortzea eta bozkatzea.

Alkateak zehaztu du, lehen, osasun larrialdiaren testuinguruan eta marko juridiko horrek ahalbideratuta plenoak telematikoki egin ahal izan zituztela, baina gaur gaurkoz alarma



Usurbilgo Udala

egoera hori ez dagoela izendatuta gaineratu du eta udalaren barne araudiak ere ez diela ahalbidetzen hori egitea.

Alkateak jarraitu du esanez barne araudia aldatu beharko litzatekeela baina bien bitartean idazkariak azterketa juridiko bat egingo duela ikusteko ze aukerak egon daitezkeen.

Idazkariak azaldu du alarma egoeran Toki Jardurbidearen Oinarriak arautzen dituen 7/85 Legeko artikulua batean atal berri bat txertatu zela, hain zuzen ere, egoera berezi batzuetan posible dela plenoa telematikoki ospatzea. Baina oraingo kasu zehatz honetan gertatzen den bezala, sesio mistoei buruz ez duela ezer esaten dio, beraz, hemen bai edo bai Barne Araudia aldatzera joan beharko luketela zehaztu du.

Gaineratu du bestela ere juridikoki araudia aldatzeko beharra badagoela.

Alkateak esan du idazkaria eta biak lehen aritu direla araudia aldatu gabe alkate dekretuz ea ahalbideratu daitezkeen zinegotzi guztiak egoera honetan egonez gero telematikoki egitea.

Idazkariak azaldu du begira egon dela eta lehen aipatu duen bezala, legearen aldaketak ahalbideratzen dituela urruneko sesioak baina sesio mistoak ez dituela ahalbideratzen, denak etxean baleude alkateak emandako dekretu bidez posible izango litzatekeela dio, baina batzuk hemen eta besteak etxean aukera hori ez duela ematen zehaztu du.

Araudi aldaketari lehenbailehen heldu beharko zaiola adierazi du eta horretarako prozedura izango litzatekeela dio lehenengo testua aztertu beharko dela, gainera ez dela puntu hau bakarrik gauza asko daudela aldatzeko zehaztu du. Behin hasierako testua onartuta, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen da eta 30 eguneko epean jendaurrean jartzen da, epe horretan alegaziorik balego, alegazio horiek ebatzi beharko direla dio eta bestela behin betikoz onartuta geratzen dela.

Gaineratu du gehiengo osoz onartu beharreko araudi bat dela.

Alkateak esan du idazkariak aspalditik duela asmoa barne araudiari heltzeko hainbat gai edo esparruetan zaharkituta geratu delako.

1.- AURREKO BILKURETAKO AKTAK:

1.1.- 2021/07/20KO BILKURAKO AKTA.

Batzarkideek 2021eko uztailaren 20ko bilkurako akta aho batez onartu dute.



Usurbilgo Udala

1.2.- 2021/09/07KO BILKURAKO AKTA.

Batzarkideek 2021eko irailaren 7ko bilkurako akta aho batez onartu dute.

1.3.- 2021/09/30EKO BILKURAKO AKTA.

Batzarkideek 2021eko irailaren 30eko bilkurako akta aho batez onartu dute.

2.- ALKATETZAKO DEKRETU HAUEN BERRI EMATEA: 2021EKO URRIAREN 25ETIK AZAROAREN 19RA (2021/920-2021/987).

Alkatetzak 2021eko urriaren 25etik azaroaren 19ra bitartean (2021/920-2021/987) egindako dekretuen berri eman zaie bertaratutakoei.

Zinegotziak jakinaren gainean geratu dira.

3.- 2022KO UDAL AURREKONTU PROIEKTUA HASIERAZ ONARTZEA.

Alkateak azalpenak eman ditu.

Adierazi du azkenengo aste hauetan bai Antolakuntza batzordean bertan bai alderdien artean egin izan diren bileretan luze aritu direla hizketan gobernu taldeak 2022rako aurkeztu duen aurrekontu proiektuaren inguruan eta baita EAJtik eta PSEtik egindako proposamenen inguruan ere.

Jarraian, 2022ko udal aurrekontu proiektuaren inguruko zertzelada nagusien berri eman du alkateak.

Aurrekontu proiektu hau berriz ere Covidaren pandemiak eta ziurgabetasun ekonomikoak baldintzatzen duen testuinguru sozialean kokatu behar dela dio, uste zuten tunel beltzetik ateratzen ari zirela baina azken egunetako datuek erakusten dutela dio tunelaren amaieran ez daudela. Beraz, osasun larrialdi honek luze jarraituko duela eta osasun larrialdiak eragin dituenak ere nozitzen jarraituko dutela gaineratu du, bai eremu sozialean eta baita eremu ekonomikoan ere. Testuinguru hori haintzat hartuz osatu dituztela dio berriro ere 2022ko aurrekontuak.

Beti esan izan duten bezala, pandemia lehertu bezain pronto garbi eduki dutela dio zein izan behar zuen Udal honen lehenetasuna, nora eta zertara bideratu behar zituzten testuinguru latz honetan udal/herri honen diruak, herritar eta kolektibo zaurgarrienak babestera eta laguntzera, hain zuzen ere. Azken urteetan nabarmen haunditu dutela dio estaldura soziala modu, ekimen eta neurri ezberdinetan; iaz adibidez dirulaguntza lerro bereziak atera zituztela aipatu du. Era berean, 2022rako onartu dituzten ordenantza fiskalek helburu horri erantzuten diotela zehaztu du, alde batetik, KPlaren igoera txiki bat planteatuz eta, bestetik, hobarietarako aukera eta eskubidea nabarmen zabalduz.



Usurbilgo Udala

Bestalde, garbi izan dutela dio garai hauetan tokikoa zela batez ere babestu, zaindu eta sustatu behar zutena. Tokikoaz ari direnean ari direla dio tokiko ekonomiaz, tokiko kultura jardueraz, tokiko herritarren gizarte eskubideez.

Aipatutakoaz gain, beraientzako aurrekontu hauek demostratzen dutela dio XXI. mendeko gizarte honek dituen erronka global eta potoloei ere tokikotik erantzun egin behar zaiela, Usurbildik ere erantzun egin behar zaiela. Partida esanguratsuak badaudela dio erakusten dutenak zer nolako anbizio handiko egitasmoak dituzten erronka globalak diren horiei erantzuteko, besteak beste, zaintzen ekosistema berria martxan jartzea, migrazio olatuek eragindako aniztasunaren kudeaketa, trantsizio energetikoa, beste turismo eredu berri bat martxan jartzea eta uraren kudeaketari dagokionez, herri honek dituen baliabideak ondo baliatuaz eta erabiliz herri burujabe bat izateko erronka.

2022rako izango duten aurrekontua ia 13 milioi eurokoa izango dela esan du, iaz baino zertxobait gehiago.

Udalek aurten Foru funtsetik diru gehiago jasoko dutela esan du, Usurbilgo Udalaren kasuan iaz baino 556.000 euro gehiago, guztira, 4.700.000 euro. Bistan dela dio diru kopuru hau arnasbide garrantzitsu bat izango dela udalen finantziatorako.

Bestetik, jarraitu du esanez aurten zorpetzearen aldeko apustu bat egin dutela, nagusiki Udalaren inbertsio ahalmena haunditu ahal izateko. Planteatu dutena izan da milioi bateko mailegua eskatzea eta, batez ere, azken urteetan amortizatu dutenaren adina berriro ere zorpetzea.

Jarraian, kapitulukako azalpenak eman ditu.

I. Kapituluak berriro ere pisu handia hartzen duela esan du, aurrekontu osoaren ia %35a, eta iazkoarekin alderatuta %2,8ko hazkuntza bat dagoela aipatu du. Hazkuntza horren arrazoiak aipatu ditu, batetik, udal langileei %2ko igoera aplikatzea planteatzen dute eta, bestetik, lehen esandako erronkei erantzun ahal izateko eta departamentu batzuk giza baliabide gehiagoz hornitzeko plantamendu bat egiten dute, nagusiki hiru aipatu ditu.

Planteatzen dutena da, batetik, parekidetasun eta aniztasun programa bat sortzea, lanaldi osoko teknikari batekin, horrek ahalbideratuko duelarik duela gutxi onartu duten aniztasun plana kudeatzea eta gaiari benetan adarretatik heltzea.

Bestetik, zerbitzu-hirigintza saila indartzeko beharra ikusten dute eta horretarako lanaldi erdian langile bat ekarriko dutela esan du.

Eta, azkenik, administrari bat lanaldi osorako.

II. Kapituluari dagokionez, hemen biltzen direla esan du, batetik, udal honen eta herri honen funtzionamendurako gastu arrunta eta, bestetik, aurrera eraman nahi dituzten egitasmo asko ere hemen jasota daudela zehaztu du.



Usurbilgo Udala

Gastu arruntetara bideratuta dauden partida askok igoera izan dutela esan du eta igoera horren arrazoia dela dio covidaren ondorioz aurreko bi urteetan partida askotan gerrikoa estutu behar izan dutela gastuen kontrol zorrotz bat egiteko eta zuhurtziaz jokatzeko eta, beraz, hainbat eta hainbat partida haunditu eta malgutu egin dituztela esan du eta beste hainbat partidetan, berriz, igoera esanguratsuak daudela esan du gasaren eta argindarraren igoeraren ondorioz.

II. Kapitulu horretan ere zenbaki artean nahastuta geratzen direla dio hainbat partida eta horiek aipatu nahiko lituzkeela esan du. Partida horietan jasotzen direla dio, alde batetik, legealdiko planean sartutako hainbat egitasmo eta konpromiso gauatzeko partidak, hala nola, turismo eredu berria, emakumeen etxea, kirolaren plan estrategikoa, HAPOa bukatzea, Etxealdian eta beste hainbat lekutan hirigintza eta HAPOarekin lotuta dauden parte-hartze prozesuak, Euskaraldia, Torrealdei beka, udal barrura begira martxan jarri nahi diren hainbat ildo, LGTBI ildoak martxan jartzea, 36ko gerra ikertzen jarraitzeko partida, etab. Zerrenda luzea dagoela azpimarratu du. Herri honek behar dituen inbertsio sozialak direla uste dute eta lehen aipatu duen bezala, aurrekontu hauek tokikoa sustatzea dute helburu eta partida zehatz hauetatik tokikoa sustatzen dela deritzote.

Partida hauekin batera daudela gaineratu du auzo bizigarriak lortzeko eta auzoetako bizi kalitatea hobetzeko aurreikusten dituzten partidak.

IV. Kapitulu, dirulaguntzen kapitulu, kapitulu honek iazkoarekin alderatuz igoera daukala azpimarratu du.

Iaz pandemia testuinguruan martxan jarri zituzten dirulaguntza guztiak mantentzeaz gain, beste lerro bat zabaltzen dutela esan du eta gizarte larrialdietarako udal laguntza propio bat sortzeko ideia dagoela esan du. Lerro berri honen helburua dela dio gaur egun gizarte esparruan dauden laguntza batzuetarako aukera edo sarbidea ez duten herritarrak laguntzea, beti ere, oinarriko behar batzuei erantzuteko.

V. Kapitulan kreditu globalari eutsi diotela zehaztu du.

VI. Kapitulan, inbertsioen kapitulan, hasteko ur-sisteman hobekuntzak egiten jarraitu behar dutela eta horrek inbertsio bat egitea eskatzen duela esan du. Alkateak baloreen jarri du herrian dugun baliabide naturala eta behar bezala ustiatzen asmatuz gero erabili beharko luketen baliabide bat dela azpimarratu du, gainera kalitatezkoa. Inbertsio honekin ia Usurbilgo etxe guztiak Andatzako edo Erroizpeko urarekin hornitzea lortu nahi dela esan du. Bestalde, honek suposatuko duela dio Añarberi gutxiago ordaindu behar izatea eta, ondorioz, aurreikusten da 8-10 urtetan inbertsio hau amortizatu ahal izatea.

Beste inbertsio potolo bat izango dela dio legealdiko planean esan zutena betez eta herriko emakumeekin eta Kalezarko auzoarekin hartutako konpromisoa betez, Pelaiotena bukatzeko obra.

Beste bi inbertsio izango direla dio, ezinbestean heldu beharreko erronka den trantsizio energetikoaren baitan, herri osoko argiteria sistema eta herriko saneamendua.



Usurbilgo Udala

Amaitzeko, Ogasun batzordean aipatu zien bezala, alkateak esan du beste bi udal taldeek egindako proposamen asko jada txertatuta zeudela aurrekontu proiektuan. Asmoetako bat badela esan du, EAJtik eta PSEtik hala jaso dena eta Etxealdiako auzotarrek ere hala eskatuta, mugikortasunaren eremuan, kale irekietatik datozen hainbat egitasmo gauzatzeko proiektu oso bat egitea. Kaxkoko mugikortasunari dagokionez proiektu bat lantzen ari direla esan du eta proiektu horren barruan txertatu dutela dio Etxealdiko aldapa hobetzeko proiektua.

EAJri zuzenduz, alkateak esan du hauek egindako hainbat eskaeretan adierazi izan diela ez dagokiola Udalari, beste instituzio batzuei dagokiela, adibidez, Etxealdiako zubia, bidegorria...

Jarraian, Josune Urkolak hitza hartu du eta adierazi du:

“Udal gobernuak datorren 2022rako aurkeztu dituen aurrekontuei buruz, esan behar dugu, memorian jasotzen diren hainbat helburu orokorrekin bat gatozela. Udalaren zeregina da usurbildar guztien bizi-baldintza duina bermatzea, behar gehien duten kolektibo eta herritarrak babestuz, inor atzean utzi gabe, eta gure herriaren izaera ekonomiko industrial, sozial eta kulturalari laguntzea; guzti hau, pandemiak baldintzatutako egoera batetan.

Helburu hauek betetzeko, Udal-Aurrekontuak oinarrizko tresna izanik, usurbildar guztien zerbitzura bideratu behar dira, bai oraingo erronkei begira eta bai epe ertainean datozen erronkei aurre egiteko ere.

EAJ udal taldeak, hainbat ekarpen egin ditu, helburu zehatzekin eta datozen urteetara begira, aurrekontuetan txertatuak izan daitezten, baina gobernu taldeak bat bakarrik ere ez du onartu bere osotasunean:

- Bizikidetzaren plana (iragan hurbilean gertatutakoa aztertzea).
- Sarrerako errotonda eta Zubietara bidegorria bultzatzea.
- Etxealdia auzoaren berrantolaketa plana.

Azken bi hauek Bizikidetzaren planarekin batera 2020ko aurrekontuetan onartuak izan ziren baina proiektuak ez dira gauzatu, besteak beste:

- Etxealdia-Santuenea, zubia.
- Txokoaldeko sarrera-irteerari irtenbide bat ematea.
- Santuenea-Zubietara bidea egokitzea.
- Landa eremua zaintzeko hainbat ekimen.
- Eserleku egokiak parke eta pasealekuetan adineko pertsonentzat eta mugikortasun arazoak dituztenentzat.
- Padel pista (3. urtea da kirol proiektu estrategikorako partida gordetzen dela baina oraindik burutu gabe jarraitzen du).
- Askatasuna plazako aparkalekuaren proiektuari ekitea (HAPOan izendatuta omen daude 3 eremu aparkalekuentzako, horietatik bi eraikitzen ari den eremu berrian, nekez ikusten dugu egun dagoen arazoari aurre egingo diotenik).



Usurbilgo Udala

Proiektu guzti hauek ere ez dira proposamenean jaso.

Bestalde, arestian aipatu bezala udal batek duen baliabide garrantzitsuena aurrekontua dela jakinik eta herritar guztien ongizatea bermatzeko tresna izanik, aurkezten diren Aurrekontuak izan duten bilakaerak kezka sortzen digu. Gure ustez, zenbakiak kezkatzeko modukoak dira:

- Gastu arruntak %8,9an igotzen dira, iaz baino ia 900.000 euro gehiago. KPlaren oso gainetik. Izugarritzko igoera iruditzen zaigu, kontutan izanda, aurrekontua guztira mantendu egiten dela. (Aurrekontua osoa %3an igotzen da, hau da 39.950 euro soilik).
- Superabit arrunta (udalak inbertsionetara bideratu dezakeen kopurua) behera doa, 2020an 1.827.635 eurotako izan zen, %14,77koa, 2021ean 783.491 eurotako, %6ra jeitsi zen eta 2022an oraindik gehiago jaisten da, 631.500 eurotara, %4,88ra da, ez da %5era iristen. Honek erakusten du inbertsioak egiteko gaitasun eza nabaria dela, nahiz eta Foru Funtsa iaz baino 556.000 € gehiago izan.
- Inbertsioei dagokionez, urtetik urtera behera doaz (nahiz eta memorian igo egiten direla esan, ia %35ean jaisten dira). 2020an 1,7 milioi izan ziren, 2021ean 2,5 milioi, eta 2022rako 1,6 milioi proposatzen dira, iaz baino 859.241 euro gutxiago, kontutan izanda, milioi bateko mailegua eskatuko dela. Nabarmendu behar dugu, nahiz eta milioi bateko mailegua eskatu, inbertsioak ez direla iristen aurreko urtean aurreikusitako kopurura, ezta ere 2020ko inbertsionetara. Ildo honetatik jarraituz gero urtetik urtera inbertsionetarako diru gutxiago izango dugu, datozen urteetako erronka haundiei erantzuteko.
- Egunean eguneko aurrekontuak iruditzen zaizkigu, etorkizunari begiratzen ez diotenak.

Guzti honegatik gure botoa kontrakoa izango da.”

Alkateak, Josune Urkolak esandakoari erantzunez adierazi du hainbat eta hainbat alditan eman izan dituztela azalpenak eta ez dakiela zer den tristura edo zer, hainbat gauza ez ulertu nahi izatea.

Bizikidetza planari buruzko azalpen eta konpromiso guztiak, zergatiak eta arrazoiak Antolakuntza batzordean eman zituela eta honen inguruan ez dela luzatuko esan du.

EAJk egindako proposamen batzuk jaso dituztela esan du eta zehazki Zubietako bidearen zabalguneei aipatu du, ez dela hain erraza dio baina hori bideratzeko urratsak emateko prest daudela zehaztu du.

Etxealdikoaren inguruan, Ogasun batzordean esan zuten bezala, mugikortasun planari lotutako eskuartze batzuk ikusten dituzte 2022an eta horrekin batera proiektu oso bat egingo zutela adierazi zutela esan du.



Usurbilgo Udala

Aurrekoak esanda, beraiek esandako hitzak zalantzan ez jartzea eskatu dio alkateak eta ez dezatela esan beraien proposamenak ez dituztena aintzat hartu.

Hainbat proposamen ez zituztela aintzat hartu esan ziela dio alkateak, tartean padel pista, kirolaren plan estrategikoaren barruan kokatzen dutena. Ahaztu egiten zaiela dio 2020an aurrekontuek murrizketa haundi bat izan zutela covidaren ondorioz, Foru Funtsa gutxitzearen ondorioz eta hainbat eta hainbat egitasmo bertan behera utzi egin behar izan zituztela, horietako bat padel pistarena.

Bestetik, inbertsio ahalmena gutxitzen ari denaren inguruan, alkateak galdetu dio Josune Urkolari “zer dira inbertsioak? Zer ulertzen dugu inbertsioaz? Gizarte babesa ez da inbertsio bat?”. Pandemia egoera honetan gizarte beharrak eta tokikoaren beharrak zeintzuk diren ikusita, udal gobernuak garbi duela dio non dauden lehentasunak, estaldura sozialean, hain zuzen ere. Beraz, momentu honetan VI. Kapituluak behera egin badu eta II. Kapituluak, IV. Kapituluak eta I. Kapituluak gora, horren arrazoia dela dio zerbitzu publikoa indartzen, zerbitzu publikoa baliabide gehiagoz hornitzen eta dirulaguntzetara diru gehiago bideratzen ari direlako da, herri honetan inor atzean ez geratzeko helburuarekin. Momentu honetan inbertsioak horretara bideratu behar dituztela azpimarratu du.

VI. Kapitularako diru gutxiago dagoela dio alkateak, baina hori erabaki politiko bat dela nabarmendu du.

Aurreko batean Josune Urkolak egin zion irakurketari erantzunez, alkateak kontuhartzaileari eskatu ziola dio azken urteetako aurrekontuen balantze bat egitea jakiteko urtez urte zein izan den superabit arrunta eta ea ezohikoa den edo ez azken urteetan. Zenbakiak eskuetan, alkateak adierazi du superabita izan dela: 2013an %0,30ekoa, 2014an %3,89koa, 2015ean %4,39koa, 2016an %5,66koa, 2017an %7koa. Orain %5ean daudela dio baina ez dela zerbait ezohikoa.

Josune Urkolak esan du hor inbertsioetarako ezintasuna ikusten dela.

Alkateak erantzun dio ezintasuna ez, lehentasunak direla. Legealdi honetako egoera kontutan hartuta, udal hau gai dela dio mailegu bat eskatzeko, gai da 750.000 euroko inbertsio bat egiteko eta aurreko urtean Txirikorda bezalako 2 milioi euroko inbertsio bat egiteko kanpo finantziario garrantzitsuak lortuta.

Ogasun batzordean esan zuten bezala urtea luzea da, orain aurrekontuekin daude, udalak gerakin oso inportante bat dauka eta esan zutela dio urte osoan zehar baloratzen joango zirela gerakin hori ze inbertsioetarako erabili. “Zeren arabera?” Galdetu du, uneoro daudela dio kanpo finantziarioa lortzen, ze dirulaguntza dauden ikusten, Europako funtsetatik ere aukera berriak datozela esan du.



Usurbilgo Udala

Josune Urkolak esan du alkateak aipatu duen gerakin inportante hori, beraiek eskatu dituzten hainbat partidetzako agian erabili zitekeela; baina gogorarazi dio azken batzordean EAJren ekarpen osoari ezezkoa bozkatu zitzaiola.

Alkateak esan dio blokean ezezkoa bozkatzek ez duela esan nahi EAJren proposamen edo emendekin batzuk aintzat hartzen ez dituztenik, gogorarazi dio blokean bozkatu behar zenez, adierazi zutela proposamen batzuen alde zeudela eta beste batzuen aurka eta batzu aurrekontuetan jasota zeudela. Gaineratu du aurka zeuden proposamenen inguruan horren arrazoiak ere eman zituztela.

Kontuhartzaileak hitza hartu du eta esan du bera ez dela eztabaida politikoan sartuko, hori ez dela bere eginkizuna, baina datu batzuk emango dituela dio ikuspegi tekniko soil batetik. Hemen aipatu dela dio eta baita Ogasun batzordean ere, zenbakiak kezkatzekoak direla, batez ere, superabit arrunta beherantz doala azken urteetan. Hori egia dela dio kontuhartzaileak baina egi erdia dela. Azken urteak kontsideratzen badira azken hiru urteak bakarrik, hori horrela dela dio; baina azken urteak 6, 8 edo 10 badira, tendentzia alderantzizkoa dela azpimarratu du.

Ogasun batzordean kezka edo iritzi hori jaso ondoren azken 10 urteetako datu-bilketa lan bat egin zuela esan du. Gaineratu du 10 urte horietan erditan baino gehiagotan bera ez dela hemen egon aurrekontuak osatzeko eta egiteko garaian baina datuak hor daudela dio Sarekon. Datu horietara joanez, hemen aipatu den bezala 2022ko aurrekontuaren superabit arrunta 4,88koa da, iaz 6,8koa, 2020an 14,77koa, azken 10 urteetako punturik altuena, 2019an 14,28koa, 2018an 10,68koa, 2017an 7,49koa, 2016an 5,66koa, 2015ean 4,39koa, 2014an 3,89koa, 2013an 5,30koa. Beraz, azken 10 urtetako zikloa kontutan hartuta, gorabeherak daudela dio, gorabehera horiek normalean %5-%15 artean oszilatzen dutela dio, eta azpimarratu du oszilazio hori aipatutako tartean badago, berari ez zaiola kezkatzeko modukoa iruditzen. Informazio gisa aipatu du Gipuzkoako udal gehienak ez direla iristen maila horietara, 5.000-10.000 arteko herrietan superabit arrunta bat az besterik ez dela adierazi du.

Kontuhartzaileak dio dena dela erlatiboa, norbera kezkatu daitekeela dio berarentzat kezkarriak diren motiboengatik eta kezka guztiak direla errespetagarriak, baina datuak diren bezala hartuta, teknikari bezala ez zaiola iruditzen dio hain kezkarria denik.

Patxi Suárezek hitza hartu du eta aurreko Ogasun batzordean esan zuen bezala, eskertu nahi izan die hasierako jarrera, berarekin kontaktzea, bere ekarpenak jasotzea eta aztertzea. Horretaz gain partidaren baten alde dagoela dio eta bi arrazoi hauengatik ez zuela emendekin osoa aurkeztu ez eta emandakin partzial asko ere.

Hauek ez direla bere aurrekontuak esan du, ez eta berak aurkeztuko lituzkeenak, eta ez dela soilik Udalbiltza edo Nazimetroaren partidengatik dio. Ogasun batzordean esan zitzaion bezala, udal gobernuak defendatzen duena zilegi da noski, eta beste partidetan ere islatzen da.



Usurbilgo Udala

Abstenitzeko prest zegoela esan du baina bere ekarpenak ez direnez onartu, kontra bozkatuko duela adierazi du.

Alkateak galdetu dio Patxiri zein ekarpen ez diren aintzat hartu.

Patxi Suárezek erantzun dio aurkeztu zituen seiak. Alkateak esan duela dio aurrekontuetan jasota daudela baina berak ez dituela ikusi, adibidez, Zubieta eta Santuenearen arteko zeharbideko seinaleztapen berria. Horretarako proiektu bat badagoela erantzun zitzaioela esan du, 800.000 eurokoa.

Alkateak argitu dio esan zitzaiona zela gaur egun bide horrek behar duen hobekuntza dela bidegorri berri bat eta bidegorri proiektu hori badagoela dio, 800.000 eurokoa. Era berean, esan zutela dio bidegorri proiektu horri heldu aurretik agian bazegoela zer hobetua. Lehen Josune Urkolari esan dion moduan, bide hori hobetzeaz ari direnean ari direla dio ikusteaz zer nolako aukerak egon daitezkeen zabalgunek batzuk egiteko. Seinaleztapen berria sartzearen inguruan esan du hori proiektuan sartuko dutela.

Etxealdiko aldapari dagokionez, lehen ere esan duela dio datorren urtean helduko diotela kaxkoko mugikortasun planari eta hor kokatzen dutela Etxealdiako aldapa.

Mikel Laboa plazako desnibela aztertzeari buruz, proposamen hori kendu egingo zuela eta beste proposamen berri bat egingo zuela Askatasun plazari zegokionez esan omen zien Ogasun batzordean eta gaur egun arte behintzat Patxik ez diela proposamen berririk egin adierazi du.

Zahar egoitzak margotzeari buruz, alkateak adierazi du esan ziotela Patxiri margotze lanak partida handi baten barnean daudela eta berak eskatzen duen 5.000 euroko partida partida handi horren barruan egongo litzatekeela, hala ere, aztertu beharko dela dio ea behar hori badagoen.

Beraz, alkateak azpimarratu du lau partidetatik laurak daudela aintzat hartuta.

Alkateak esan du Patxik eskatzen badie beraien proiektu politikoari muzin egitea Naziometroaren eta Udalbiltzako partidak kenduta, argi erantzun ziela ezetz.

Alkateak eskatu dio Patxiri esateko zein partida ez duten kontutan hartu.

Patxi Suárezek erantzun dio kontutan hartuta bai, baina orain aurrekontuetan dabilta eta berak oso gutxi eskatu zuela dio. Ulertzen duela dio gehiengoa dutela, beraien partidak dituztela eta beraien ideiak defendatu ditzazketela. Baina berak oso gutxi eskatu zuela eta ez direla onartu, eta bere ustez exekutatu arte beharrezkoa dira, seinaleztapen hori beharrezkoa dela dio.



Usurbilgo Udala

Alkateak berriz ere esan dio ez esateko bere lau ekarpenak ez dituztenik aintzat hartu, aintzat hartu baidituzte.

Patxi Suárezek erantzun dio baietz, aintzat hartu direla baina orain aurrekontuetan daudela eta bere proposamenak horiek direla.

Beñat Larrañagak adierazi du lehenengo hartuemanak elkarrekin egin zituztela eta Patxiri adierazi zion moduan, garai politiko berri bat bizitzen ari dira eta garai berri horretan pausoak ematea dagokiela arduraz herritarren aurrean.

Zaila egiten dela dio EAJ eta PSEren aldetik entzutea badaudela gauza batzuk gustatzen zaizkienak eta horietan bat egiten dutela, baina behin eta berriz topatzea EAJren gai batzuekiko egoskorkeriarekin, nahiz eta behin eta berriz azalpenak eman. Gai batzuekiko iritzi ezberdinak egon daitezkeela dio eta hori zilegi dela. Patxiri zuzenduz esan dio pena haundia ematen diola jarrera horrekin aurkitzea, ze denborak arrazoia emango diela esan du, egin asmo dituztenak egin egingo dituztelako. Iruditzen zaio ez duela ulertzen udal aurrekontua nola antolatzen den, nola lan egiten duten, nola funtzionatzen duen Usurbilgo Udalak eta oso argudiategi sinplea dela ezezko bozka bat emateko.

Patxi Suárezek adierazi du berari ere pena ematen diola baina ez zela posible.

Lur Etxeberriak gaineratu du ikusten duela Etxealdiako aldaparekin kezka nagusi bat badagoela eta jakinarazi du gaur bertan kanpoko arkitektoarekin bilera egin dutela, beraz, ja horretan ari direla azpimarratu du.

Batzarkideek, Ogasun batzorde informatzaileko irizpena aztertu dute eta gehiengoz onartu dute:

“2022 urtean indarrean izango den Aurrekontua osatzeko garaia iritsita, udal gobernu taldeak bere aurrekontu proposamena aurkeztu zuen azaroaren 5eko Ogasun Batzordean. Egun berean gonbidapena luzatu zien beste udal taldeei, egoki ikusten zituzten ekarpenak egin zituzten. Aldi berean, herritarrekin parte hartze bilerak burutu dira.

Herritarrek ahoz egindako ekarpenez gain, EAJ-PNV eta PSE udal taldeek idatziz egindako ekarpen eta zuzenketak jaso dira azaroaren 19a bitartean.

Jasotako ekarpen guztiak aztertu eta erantzun ondoren eta legezko txosten guztiak jaso ondoren, osatutzat eman zuen Aurrekontu proiektua udal gobernu taldeak eta azaroaren 19ko Ogasun Batzordean honako erizpena luzatu zaio Udalbatza Osoari, batzordea osatzen



Usurbilgo Udala

du ten kideen gehiengoaren oniritziarekin, 2 bozka alde (EH Bildu) eta 2 abstentzio (EAJ eta PSE).

Irizpena kontutan hartuta, Udalbatzarrak honako erabakia hartu du gehiengoz:

ERABAKIA

1.- 2022 ekitaldirako Usurbilgo Udalaren Aurrekontu proiektua hasieraz onartzea, guztira 12.934.000 Eurokoa eta kapituluka honako laburpena duena:

SARRERAK	2022	%
I Zerga zuzenak	3.069.905,00	23,74%
II Zeharkako zergak	600.000,00	4,64%
III Tasak eta besteak	2.219.115,00	17,16%
IV Transferentzia arruntak	5.991.580,00	46,32%
V Ondare sarrerak	24.400,00	0,19%
Sarrera arruntak:	11.905.000,00	92,04%
VI Inbertsioak besterenganatzea	25.000,00	0,19%
VII Kapital transferentziak	4.000,00	0,03%
IX Finantza pasiboak	1.000.000,00	7,73%
Kapital sarrerak:	1.029.000,00	7,96%
SARRERAK GUZTIRA	12.934.000,00	100,00%

GASTUAK	2022	%
I Langile gastuak	4.521.486,00	34,96%
II Ondasun eta zerbitzu arruntak	5.366.269,00	41,49%
III Interesak	10.000,00	0,08%
IV Transferentzia arruntak	1.23.745,00	7,92%
V Kreditu globala	100.000,00	0,77%
Gastu arruntak:	11.021.500,00	85,21%
VI Inbertsio errealak	1.607.500,00	12,43%
VII Kapital transferentziak	53.000,00	0,41%
VIII Finantza aktiboen aldaketa	0,00	0,00%
IX Finantza pasiboen aldaketa	252.000,00	1,95%
Kapital gastuak:	1.912.500,00	14,79%
GASTUAK GUZTIRA	12.934.000,00	100,00%

SUPERABITA: 21/2003 F.A.: 14.6 artikulua:

Sarrera arruntak: (1)	11.905.000,00	92,04%
Amortizazio gastuak: (2)	252.000,00	1,95%
Gastu arruntak: (3)	11.021.500,00	85,21%
Superabit arrunta = (1) – (2) – (3)	631.500,00	4,88%



Usurbilgo Udala

2.- Hasieraz onetsitako Aurrekontua jendurrean jartzea 15 eguneko epealdian, Iragarki oholean eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuz, epealdi horretan interesatuek aztertu eta udalbatzari erreklamazioak aurkeztu ahal izango dizkiotelarik.”

Honela izan da bozketa:

Aldeko botoak: Agurtzane Solaberrieta Mesa, Beñat Larrañaga Urdanpilleta, Lur Etxeberria Gurrutxaga, Joxe Mari Iribar Zapirain, Ainhoa Arrozpide Landa, Oskar Santamaria Pikabea eta Itziar Basterrika Unanue.

Aurkako botoak: Josune Urkola Larrarte, Mirari Azurmendi Sorazu, Carlos Pérez Fraisoli eta Francisco José (Patxi) Suárez Pérez.

Beraz, erabakia gehiengoz hartu da.

4.- 2022KO PLANTILA ORGANIKOA HASIERAZ ONARTZEA.

Beñat Larrañagak azaldu du urtero bezala aurrekontuekin batera plantila organikoa eta lanpostuen zerrenda onartu behar direla, zuzenean lotuta baitaude aurrekontuetako I. Kapituluari jasotzen diren pertsonal gastuekin.

Plantila organikoan jasotzen direla dio zenbat lanpostu dauden eta ze egoeratan gauden, beteta edo hutsik. Lanpostuen zerrendan, berriz, jasotzen dira lanpostu bakoitzaren xehetasunak, hala nola, soldata, hizkuntza eskakizuna, etab.

Beñatek zehaztu du datorren urteari begira ez dagoela aldaketa nabaririk batean zein bestean.

Lanpostuen zerrendan soldata igoerari dagozkion aldaketak aplikatu direla esan du eta baita bere garaian onartutako idazkariaren dedikazioa ere.

Batzarkideek, Pertsonal batzorde informatzaileko irizpena aztertu dute eta gehiengoz onartu dute:

“Apirilaren 18ko 781/1986 Errege Dekretu Legegileak 126. artikuluan eta Toki Araubidearen Oinarriari buruzko apirilaren 2ko 7/1985 Legeak 90.1 artikuluan jasotakoaren arabera, urtero Udala aurrekontuarekin batera Plantilla Organikoa onartu behar da.



Usurbilgo Udala

Horretaz gain, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauak, 14-15. artikuluetan jasotzen du Aurrekontua onartzeko jarraitu beharreko prozedura.

Gaia 2021ko azaroaren 18an egindako Pertsonal Batzordean eztabaidatu ondoren gehiengoz onartua gelditu da, hurrengo bozkak eman direlarik:

- Aldeko botoak: Beñat Larrañaga Urdanpilleta, Itziar Basterrika Unanue
- Abstentzioa: Carlos Perez Fraisoli

Beraz, Pertsonal batzordeko irizpena kontutan hartuta, Udalbatzarrak honako erabakia hartu du gehiengoz:

ERABAKIA

LEHENENGOA: Erabaki honi erantsita doan Usurbilgo Udaleko 2022ko Plantilla Organikoari onespena ematea.

BIGARRENA: Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean iragarkia argitaratzea eta hamabost egunez erakusketa publikoan jartzea, erreklamazioak edota alegazioak aurkeztu ahal izateko. Epe horretan erreklamaziorik ez balego, behin betikotzat onartua izango litzatekelarik.

HIRUGARRENA: Behin betikoz onartu ondoren, dokumentua, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.”

Honela izan da bozketa:

Aldeko botoak: Agurtzane Solaberrieta Mesa, Beñat Larrañaga Urdanpilleta, Lur Etxeberria Gurrutxaga, Joxe Mari Iribar Zapirain, Ainhoa Arrozpide Landa, Oskar Santamaria Pikabea, Itziar Basterrika Unanue eta Francisco José (Patxi) Suárez Pérez.

Abstentzioa: Josune Urkola Larrarte, Mirari Azurmendi Sorazu eta Carlos Pérez Fraisoli.

Beraz, erabakia gehiengoz hartu da.

5.- 2022KO LANPOSTUEN ZERRENDA ONARTZEA.

Batzarkideek, Pertsonal batzorde informatzaileko irizpena aztertu dute eta gehiengoz onartu dute:

“Apirilaren 18ko 781/1986 Errege Dekretu Legegileak 126.4 eta uztailaren 6ko Euskal Funtzio Publikoari Buruzko 6/1989 Legeak 13. artikulua eta hurrengoetan lanpostuen zerrenda arautzen du.



Usurbilgo Udala

Gaia 2021eko azaroaren 18an egindako Pertsonal Batzordean eztabaidatu ondoren gehiengoz onartua gelditu da, hurrengo bozkak eman direlarik:

- Aldeko botoak: Beñat Larrañaga Urdanpilleta, Itziar Basterrika Unanue
- Abstentzioa: Carlos Perez Fraisoli

Beraz, irizpena kontutan hartuta, Udalbatzak honako erabakia hartu du:

ERABAKIA

LEHENENGOA: Erabaki honi erantsita doan Usurbilgo Udaleko 2022ko Lanpostuen Zerrendari onespena ematea.

BIGARRENGOA: Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean iragarkia argitaratzea.”

Honela izan da bozketa:

Aldeko botoak: Agurtzane Solaberrieta Mesa, Beñat Larrañaga Urdanpilleta, Lur Etxeberria Gurrutxaga, Joxe Mari Iribar Zapirain, Ainhoa Arrozpide Landa, Oskar Santamaria Pikabea, Itziar Basterrika Unanue eta Francisco José (Patxi) Suárez Pérez.

Abstentzioa: Josune Urkola Larrarte, Mirari Azurmendi Sorazu eta Carlos Pérez Fraisoli.

Beraz, erabakia gehiengoz hartu da.

6.- MOZIOA: AZAROAK 25, EMAKUMEEN KONTRAKO INDARKERIAREN AURKAKO NAZIOARTEKO EGUNA.

Alkateak adierazi du “Kafe tertulia” Usurbilgo neska gazte talde feministak ekimen bat abiatu duela, Usurbilgo neska eta emakumeen testigantzak jaso dituztela grabazio batean eta grabazio hori jarri du denek entzuteko.

Batzarkideek mozioa aho batez onartu dute:

“Emakumeen aurkako indarkeria larderiako tresna indartsua da, emakumeei zuzendua, indarrean dauden genero-arauak desafiatu eta eralda ez ditzaten. Mehatxurako tresna hori zuzenean emakumeengan erabiltzen da, baina baita haien gertuko pertsona maitatuenengan ere, min handiagoa sortzeko modu gisa. Kalkuluen arabera, bikotekideen edo bikotekide ohien eskutik indarkeria jasaten duten EAEko hamar emakumetik seik seme-alaba adingabeak dituzte, eta horiek ere biktima bihurtzen dira.

Indarkeria bikarioa esaten zaio emakumeari, hirugarren pertsonak baliatuz, kalte psikologiko handiena eta larriena eragiteko egiten zaion biolentzia motari, zeinak ankerkeria-maila gorena lortzen duen haien erailketarekin (seme-alabak, ama, aita, egungo bikotekidea,



Usurbilgo Udala

etab.). Istanbulgo Hitzarmenean ezarritakoa aplikatuz, kasu horiek ere genero-indarkeriaren parte gisa ulertzen dira, seme-alabei egindako kalteak erasotzaileek emakumeei tratatu txarrak transmititzeko tresna bihurtzen diren heinean.

Azken lege-aldaketek dagoeneko jasotzen dute figura hori, biktima adingabeak babesteko neurriak sortzeari eta hedatzeari dagokionez. Hala ere, oraindik ere beharrezkoa da genero-indarkeria ukatzen duten, kasu horietan seme-alaben arriskua gutxien duten eta indarkeria horri aurre egiteko tresna juridikoak zalantzan jartzen dituzten diskurtsoen eta jarreraren aurka ohartaraztea. Jarrera horiek adingabeen eta emakumeen birbiktimizazioan eragiten dute, haien salaketak susmopean jartzen dituzte, amak zigortzen dituzte, haien testigantza gutxien dute eta aitaren guraso-ahalaren eskubidea babesten dute, emakumeen eta adingabeen segurtasunaren eta indarberritzearen gainetik.

Emakumeen aurkako indarkeria beren seme-alaben bidez sistematikoki egikaritzeko modu horren aurrean, bai eta emakumeak kontrolatzeko, hertsatzeko eta kaltetzeko modu guztien aurrean ere, euskal erakundeok indarkeria horri aurre egiteko erantzukizuna dugu, kontuan hartuta ez direla gertakari isolatuak, egiturazko desberdintasun-egoera bati erantzuten diotela, eta egoera horri ikuspegi feministatik heldu behar zaiola.

Horregatik, Usurbilgo Udalak honako konpromiso hauek hartu nahi ditu:

- Gutariko bakoitzari dagokigu egoera hori aldatzea. Horregatik, Usurbilgo Udaletik lanean jarraituko dugu beharrezkoak diren baliabide tekniko, ekonomiko eta politikoak bideratzen, alde batetik, udaleko berdintasun saila indartuz, eta, bestetik, emakumeen parte-hartzerako guneak sustatuz, hala nola emakumeen etxea, ahalduntze-eskolak, jai parekideak eta abar.
- Indarkeria bikarioaren errealitate hori agerian jartzen eta behar bezala artatzen laguntzea, besteak beste, Istanbulgo Hitzarmenak jasotzen dituen indarkeria-bideen biktima adingabeak koordinazio protokoloetan eta indarkeria matxistaren biktimak artatzeko protokoloetan txertatzea eta protokoloak eguneratzea.
- Indarkeria matxistaren biktima diren adingabeak hautematen eta esku-hartze goiztiarra egiten laguntzea, udal-zerbitzuen bidez, beste eragile batzuekin lankidetzan (hezkuntza-, osasun- eta polizia-agentek, etab.), eta emakumeek beren ardurapean dituzten adingabeekin eta kaltetutako beste pertsona batzuekin behar dituzten beharrei eta baldintzei erantzutea.
- Indarkeria matxistaren biktima diren adingabeak babesteko eta esku hartzeko prozesuak hobetzea, beren eskumenen esparruan, ikuspegi feminista duen sektore arteko abordatze integral eta holistikotik.
- Neurri guztien erdigunean jartzea biktimen eskubideak eta haien ahalduntzea, eta laguntza integrala ematen laguntzea, prozedura judizialarekin duten inplikazio- edo lankidetzeta-maila edozein dela ere.



Usurbilgo Udala

- Toki-administrazioko langileak berdintasunari buruzko prestakuntza jaso dezaten bultzatzea, bereziki emakumeen aurkako indarkeria matxistaren aurrean erantzuten diharduten langileei, genero-ikuspegia eta giza eskubideen ikuspegia aintzat hartuz.
- Lanean jarraitzea berdintasunaren aldeko eta emakumeenganako indarkeriaren aurkako, eta, ondorioz, haien seme-alaben aurkako, herri-itun bat lortzeko, herritar guztien jarrera aktiboa behar dugulako indarkeria matxistarik gabeko gizarte bat lortzeko.

Herritarrei gogorarazi nahi diegu indarkeriaren biktimei laguntzeko baliabideen sarea eskuragarri dagoela, besteak beste, SATEVI (900 840 111) indarkeriaren biktime diren emakumeentzako telefono bidezko arreta-zerbitzuaren eta ZEUK ESAN (116 111) haur eta nerabeentzako telefono eta online orientazio-, aholkularitza- eta informazio-zerbitzuaren bidez.

Era berean, herritarrei dei egiten diegu azaroaren 25ean bat egin dezaten emakumeenganako indarkeriaren aurkako nazioarteko eguna dela-eta beren udalerrietan deitutako mobilizazioekin.”

Honela izan da bozketa:

Aldeko botoak: Agurtzane Solaberrieta Mesa, Beñat Larrañaga Urdanpilleta, Lur Etxeberria Gurrutxaga, Joxe Mari Iribar Zapirain, Ainhoa Arrozpide Landa, Oskar Santamaria Pikabea, Itziar Basterrika Unanue, Josune Urkola Larrarte, Mirari Azurmendi Sorazu, Carlos Pérez Fraisoli eta Francisco José (Patxi) Suárez Pérez.

Beraz, mozioa aho batez onartu da.

7.- MOZIOA: MIGRAZIOARI BURUZKO EUSKO ITUN SOZIALA.

Itziar Basterrikak mozioa irakurri du.

Batzarkideek, Parekidetasun eta Aniztasun batzorde informatzailean diktaminatutako irizpena aho batez onartu dute:

“Eusko Jaurlaritzako Migrazio eta Asilo Zuzendaritzak Migraziorako Euskal Itun Sozialarekin bat egiteko proposamena egin dio Usurbilgo Udalari.

Migraziorako Euskal Itun Soziala izeneko dokumentua Eusko Jaurlaritzak sustatu du, gaur egungo migrazio-erronkari pluraltasunaren, elkartasunaren eta beharraren ikuspuntutik erantzuteko.



Usurbilgo Udala

Itun sozialak hiru premisa ditu abiapuntu gisa: premisa politikoa (pluraltasuna); premisa etikoa (elkartasuna) eta premisa pragmatikoa (beharrizana). Eta hortik abiatuta zeharkako aukerak eta konpromiso zehatzak finkatzen ditu.

Horrenbestez, ondokoa adierazten du Usurbilgo Udalbatzak:

1. Usurbilgo Udalak Migrazioaren Euskal Itun Sozialarekin bat egiten dugu.
2. Eusko Jaurlaritzari eskatzen diogu politika migratorioak garatzeko erakunde arteko mahaia aktibatzeko.
3. Eusko Jaurlaritzari eskatzen diogu itun honetan jasotzen diren asmoak konpromisoetan bilakatu eta erakundeen artean programak adosteko.
4. Eusko Jaurlaritzari eskatzen diogu itunak jasotzen duena garatzeko baliabideak ezartzeko.

Guzti hau kontutan izanik, Parekidetasun eta Aniztasun batzordeak, 2021ko azaroaren 16an egindako bilkuran, Josune Urkola, Patxi Suárez, Agurtzane Solabarrieta, eta Beñat Larrañagaren aldeko botoekin, aho batez, proposatutako irizpena kontutan hartuta, Udalbatzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

ERABAKIA

LEHENENGOA: Usurbilgo Udalak Migrazioaren Euskal Itun Sozialarekin bat egitea.

BIGARRENA: Eusko Jaurlaritzako Migrazio eta Asilo Zuzendaritzari diktamen honen berri ematea.”

Honela izan da bozketa:

Aldeko botoak: Agurtzane Solabarrieta Mesa, Beñat Larrañaga Urdanpilleta, Lur Etxeberria Gurrutxaga, Joxe Mari Iribar Zapiain, Ainhoa Arrozpide Landa, Oskar Santamaria Pikabea, Itziar Basterrika Unanue, Josune Urkola Larrarte, Mirari Azurmendi Sorazu, Carlos Pérez Fraisoli eta Francisco José (Patxi) Suárez Pérez.

Beraz, mozioa aho batez onartu da.

8.- MOZIOA: INTERES PUBLIKO GORENEKO PROIEKTUEN ERREGULAZIO BERRIA.

Mozioa batzorde batek diktaminatu gabe datorrenez, hasteko, batzarkideek plenoan tratatzea erabaki dute aho batez.

Beñat Larrañagak mozioa irakurri du.



Usurbilgo Udala

Mirari Azurmendik beraien iritzia hitz hauekin azaldu du:

“EUSKADIKO INGURUMEN ADMINISTRAZIOAREN LEGE PROIEKTUA

Lege honetan **diseñatutako neurriak funtzeskoak** dira Ingurumen **Administrazioaren funtzionamendua arintzeko** eta **sinplifikatzeko**, hau da, lege honekin administrazioaren esku-hartzea murriztu eta sinplifikatu egiten da.

Aipatzekoa da ere, lege honen bitartez, ingurumenean eragina duten jardueretan esku hartzeko teknikak arautuko dituen sistema bat osatuko dela, eta Ingurumen politika koherente bat bermatzeko, Ingurumenean eta pertsonen osasunean eragina duten jardueren antolamendu eta ikuskaritzarako eskumena Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumen Organoari esleitzen zaiola.

Laburbilduz, lege honekin:

-Ingurumen gaiei buruzko informazioa guztion eskura ipintzen da, parte hartzeari garrantzi handia ematen zaiolarik. Azken finean, botere publikoen jardunean gardentasuna, eragingarritasuna, ekonomia eta eraginkortasuna bermatzen da.

Eta helburu garrantzitsuena: - **ingurumena eta herritarren Osasuna babesten dituen interes orokorrari modu koordinatu eta eraginkorrean erantzungo zaio.**”

Beñat Larrañagak erantzun dio ingurumenaz hitz egiten dutela, administrazioaren erraztasunaz, baina bidean utzi dituztela dio tokiko erakundeek dituzten eskumenak, herritarren partaidetzarekin eraikitzen diren HAPOak eta toki demokrazia.

Ingurumenaz hitz egiten hasita krisi klimatikoaz ere hitz egin dezaketela dio, hori baita ingurumenaren helburuetako bat.

Aipatu beharra dagoela dio Urkulluren agintaldi osoan negutegi efektuko gas isuriak ia bat ere ez direla jaitsi eta 2030erako isurien erdia jaitsi beharko luketela Europatik adierazitako moduan eta gaur egun ez dago planik. Ez dakiela dio ea plan hori pasatzen ote den herritarren eta herrietako eskumenen gainetik.

Beñatek horrela jarraitu du hitzez-hitz: “IGPP figura honek inposaketaren bidearen hautua egiten du. Erronka oso handiak izango ditugu datozen urteotan krisi klimatikoari aurre egiteko. Baina inposaketaren bidea hautatzen bada gatazkak besterik ez dira sortuko. Guk adostasunaren aldeko hautua egiten dugu, erakunde ezberdinen arteko adostasuna eta hiritar eta eragileekin adostasuna. Trantsizio klimatikoaren bidea guztiok batera egin behar dugulako.

Egun badaude tresna juridikoak (PTSak esaterako) lurraldearen antolamendua ikuspegi sektorialetatik era integralean ordenatzen dutenak. Eta hauetan ezarritakoa ere udalen



Usurbilgo Udala

hirigintza plangintzei gailentzen zaie, baina gutxienean kontsultatu beharra eta parte hartze prozesuen bidez egin beharra dago. Beraz, IGPP figura ez da beharrezkoa ordenamenduan, Eusko Jaurlaritzak adosteko duen ezgaitasunari erantzuten dio.

Esan bezala Eusko Jaurlaritzan ez dago planik eta, beraz, ordua da krisi klimatikoari aurre egiteko markoak sortu eta planak egiten eta martxan jartzen hastekoa. Krisi klimatikoari era integral eta orokortuan egin behar zaiolako aurre eta, batez ere, era ordenatuan, inprobisazioak eta inposaketak alde batera utzita. Ez dutela ahaztu behar dio ingurumenaren aitzakipean emendekin bidez eta udaloi horren inguruko iritzia emateko aukerarik gabe inposatzen den neurri bat dela.”

Mirari Azurmendik erantzun dio bat datozela guztien artean egin behar dela trantsizio energetikoa. Lege honek berak klimaren erronkei aurre egiteko planak eta programak bertan sartzen dituela dio, horiek sustatu eta egikaritzeko, egoerak eskatzen duen presarekin horiek denak ahalbidetzeko.

Alkateak galdetu dio: “Udal borondatearen gainetik?”

Mirari Azurmendik erantzun dio interes orokorraren kontzeptua hori dela.

Beñat Larrañagak adierazi du esan duela bestelako elementu batzuk badaudela, PTSak badaudela, baina gutxienez kontsulta eta parte hartzea bermatzen dutenak. Ez dakiela dio EAJren eta PSEren interesa den gobernatzen ez duten udal horietan beraien gustokoak ez diren politikak inplementatzeko atzeko ate bat prestatzen ari ote diren. Baina usurbildarrei eta gobernatzen ez duten beste herri guztietan ere azalduko beharko dutela dio, tamalez hau aurrera joaten baldin bada, zergatik ez dute errespetatzen herri horietako borondatea eta nahia.

Mirari Azurmendik erantzun dio lege honek kapitulu oso bat duela informazioari eta parte hartzeari bide ematen diona eta hori kontutan izan behar dutela, horrek erakusten baitu ez dagoela izkutuan edo atzeko atetik ezer egiteko asmorik.

Beñat Larrañagak zehaztu du atzeko atetik egiten dela HAPOaren gainetik jartzen delako, Udalak kontsultatu gabe.

Itziar Basterrikak adierazi du askotan ez duela ulertzen Eusko Jaurlaritzatik zein irizpide hartzen dituzten kontutan, hau da, hemen lege baten oinarriean hartu nahi dituzte erabaki batzuk, eta berak argi gu Udalak gutxietsi nahi dituztela eta Udalei kendu nahi diela baimena eta era berean gobernua ari dela dio lege bat hezkuntzaren inguruan aurrera eramaten non



Usurbilgo Udala

Udalari baldintza guztiak ematen dizkion lege hori aurrera eramateko eta hori horrela, galdetzen du Udalak batean zuriak ote diren eta bestean beltzak.

Alkateak salatu du gaur egungo lurralde antolamenduaren irizpideak hankaz gora botatzen dituela EAJk eta PSEk aurkeztu duten emandakin honek, Udalek beren herria antolatzeko duten eskuduntza hankaz gora botatzen duela.

Patxi Suárezek adierazi du bere ustez lege honek ez duela autonomiarik kentzen. Interes gorena existitzen dela dio eta Eusko Legebiltzarrean eta Eusko Jaurlaritzan herritar guztiak daudela ordezkaturata.

Beñat Larrañagak esan du ez dakiela aurrera aterako den edo ez baina Irunen PSE alderdia testu bat lantzen ari zela esan du eta testu horretako bi parrafo irakurri ditu:

“La modificación propuesta permitiría acordar la suspensión del planteamiento territorial mediante la declaración de proyectos de interés público por parte del Gobierno Vasco, a propuesta del actual Departamento de Desarrollo Económico Sostenibilidad y Medio Ambiente.

La declaración de proyectos de interés público superior, tal y como está propuesta, implicaría que cualquier proyecto con supuestas mejoras medioambientales tendrían una jerarquía absoluta y evitarían los instrumentos de ordenación territorial actuales, tales como los PGU, PTP, PTS o las DOT, que deberían adaptarse ahora al PIPS, e incluso realizar las modificaciones internas que fueran necesarias.”

Batzarkideek honako mozioa gehiengoz onartu dute:

“Gaur egun, Ingurumen Administrazioaren Lege Proiektua izapidetzen ari da Eusko Legebiltzarrean, eta zuzenketak aurkeztu ondoren, Legebiltzarreko prozeduraren fase aurreratuan dago, epe laburrean onartu dadin.

Eusko Jaurlaritzak aurkeztutako lege-proiektuari aurkeztutako zuzenketetarik baten xedea Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamenduari buruzko maiatzaren 31ko 4/1990 Legea aldatu eta figura berri bat arautzea da, hau da, PIPS edo Interes Publiko Goreneko Proiektuen figura sortzea.

Aldaketa horren bidez, Eusko Jaurlaritzari ahalmena ematen zaio ustezko ingurumen-hobekuntza izan dezakeen edozein azpiegitura Interes Publiko Goreneko Proiektu izendatzeko, baldin eta sustapen publikoa badago, hala nola, energia berriztagarriak sortzeko proiektuak, zabortegeak, araztegiak, erauzketa-proiektuak, etab. Gainera, ez zaie aterik ixten beste proiektu mota batzuei, hala nola ekipamendu handiei edo bestelakoei, baldin eta ingurumenaren aldetik nolabaiteko justifikazioa badute (eremu degradatu batean



Usurbilgo Udala

planteatutako ia edozein proiektu, esaterako, antzinako hondakindegia batean golf-zelai bat...).

IPGP izendapen horrek lurralde-antolamenduko eta hirigintza-plangintzako tresna guztiak azpiegitura berrira egokitu beharra ekarriko du, hau da, IPGPak, herritarren parte-hartzearekin eginiko udalen Hiri Antolamenduko Plan Orokorrei inposatu egingo zaizkie, balizko interes orokorreko proiektu horiek toki-eremuko administrazio publikoen irizpidearen aurkakoak izan arren; zentzu horretan IPGPak HAPOa baliogabetu egingo du. Are gehiago, Lurralde Antolamenduaren Legearen aldaketa honek toki-erakundeen prebentzio-kontrolerako ahala ere baliogabetzen du.

"IPGP" figura, beraz, lurralde- eta hirigintza-plangintzaren inguruan ezarritako adostasunaren aurkako eraso bat da. Toki-eremuko autonomia eta demokrazia nabarmen urratzea, udalari ez baitzaio aukerarik ematen bere lurraldearen barruan desegokitzen jotzen dituen erabilerak mugatzeko.

Kezka handiz ikusten dugu Ingurumen Administrazioaren Legea laster baldintza horietan onartu ahal izatea. Hori dela eta:

1. Usurbilgo Udalaren Osoko Bilkurak adierazten du Lurralde Antolamenduari buruzko Legeak Interes Publiko Goreneko Proiektuen figura jasotzearen aurka dagoela, eta baita ere, gure udalen toki-autonomiarentzat kaltegarria den eta gure toki-demokrazia urratzen duen beste edozein tresnaren aurka dagoela.
2. Usurbilgo Udaleko Osoko Bilkurak EUDEL Euskadiko Udalen Elkarteari eskatzen dio, udalen udal-interesa defendatzeko, jendaurrean adieraz dezala aurka dagoela eta dagozkion kudeaketa guztiak egin ditzala Lurralde Antolamenduari buruzko Legea aurreko puntuan deskribatutako moduan alda ez dadin.
3. Usurbilgo Udalaren Osoko Bilkurak mozio honen edukia Eusko Legebiltzarrera eta EUDEL Euskal Udalen Elkartera bidaltzea erabaki du.

Honela izan da bozketa:

Aldeko botoak: Agurtzane Solaberrieta Mesa, Beñat Larrañaga Urdanpilleta, Lur Etxeberria Gurrutxaga, Joxe Mari Iribar Zapirain, Ainhoa Arrozpide Landa, Oskar Santamaria Pikabea eta Itziar Basterrika Unanue.

Kontrako botoak: Josune Urkola Larrarte, Mirari Azurmendi Sorazu, Carlos Pérez Fraisoli eta Francisco José (Patxi) Suárez Pérez.

Beraz, mozioa gehiengoz onartu da.

9.- ADIERAZPENA: 2021EKO EUSKARAREN NAZIOARTEKO EGUNA.



Usurbilgo Udala

Adierazpena batzorde batek diktaminatu gabe datorrenez, hasteko, batzarkideek plenoan tratatzea erabaki dute aho batez.

Oskar Santamariak adierazpena irakurri du.

Batzarkideek honako adierazpena aho batez onartu dute:

**“Euskara lanabes, aro berrirantz
Erabilera-eremu berri eta ez formaletan ere, euskarak arnas berri**

Tentuz, baina ateratzen ari gara, azkenean, beltzenetik argira. Berreskuratzen hasi gara gutariko bakoitzaren eta elkarrekin osatzen dugun herriaren eta gizartearen bizitza erakargarri ez ezik, jasangarri ere egiten duena: zuzeneko harremanak; elkartzeko ohiturak, aukerak eta guneak; osatzen gaituzten besteengana biltzeko joera. Eta, horrekin batera, ezinbestekoa dugun jarduera ekonomikoaren hari eta sareak berriz ere indartzen ari gara, pandemiaren aurretiko tokira eta, inola ere ahal balitz, hobera iristeko itzaropenez.

Eta erabaki sendo bat dugu gidari: ez dadila funtsezkorik ezer atzean geratu.

Ezta euskara ere. Inola ere ez.

Gurekin batera egin dio euskarak pandemiari aurre, eta gurekin irten behar du garaile. Izan ere, aro berrian, gure eta geure gizartearen zaugarritasunaren jakitun egin gaituen egoera larriaren ondoren, harreman eta komunikazio molde, ohitura eta bide berriak sortzen ari dira, eta are berriagoak eta harrigarriagoak sortuko dira aurrerantzean.

Pandemiak agerian utzi du jakin bagenekiena: zenbateraino diren ezinbestekoak komunikazio ildo eta sareak, zenbaterainoko balioa eransten dion komunikazioak gure zeinahi jarduerari; orain, jakiteaz gain, sentitu ere egiten dugu errealitate hori: sakon-sakoneraino barneratu dugu komunikazioaren, harremanaren funtsezkotasuna. Hori da aro berriaren ezaugarri nagusietariko bat. Eta hori bera du euskarak erronka: komunikazio eta jarduera eremu berrietan ere, naturaltasun osoz, dagokion tokia hartzea. Eraginkorki. Tinko.

Euskara, euskal hiztunon komunitatearen jarrera proaktiboari esker, IKTek hizkuntza gutxituen hedapena eta indartzerako ekarri duten erronka handiari aurre egiten ari zaio, komunikazio eta informazioaren teknologien sareetan. Badu tokirik. Baliagarria da. Eta zinez zaila du hizkuntza ozeano erraldoian horrelakorik lortzea.

Eredugarria da alor horretan ere euskal hiztun komunitateak egin duen eta egiten ari den lana, besteak beste erabilerarekin zuzen-zuzenean loturiko presentzia delako euskarari benetako balio erantsia dakarkiona. Eta argi geratzen ari da erakunde publikoak eskaini behar dugun ezinbesteko babes eta lidergotik, ekimen eta lankidetzaren publiko-pribatuaren eskutik lan egiten badugu, erronkaren neurriak ez gaituela beldurtu behar. Gai garela argiro erakusten ari garela, adibidez hezkuntzaren munduan, hedabideenean,



Usurbilgo Udala

osasungintzarenean, eremu sozioekonomikoan, administrazioarenean eta beste hainbat eta hainbatetan urrats ausartak eman behar direla eta ematen ari garela euskal hiztunen eskubideen gauzapean errealean.

Eta horietan guztietan aurrera egin beharra dago, jakina, aurrerapauso sendoagoak emanaz, jarraikortasunez, etengabeko berrikuntzaren bidetik eta guztion konpromisotik. Baina pandemiaren osteko aro berriaren hasiera honek beste ikuspegi bat eranstea eskatzen digu: hizkuntzaren erabilera formalekin batera, eremu ez formaletakoa landu beharra dago, behar besteko lehentasunez. Euskal hiztunak naturaltasun osoz gauzatu behar du euskaraz bizitzeko aukera, eguneroko harremanetan eremu formaletik lan mundu, aisialdi, kultur edo kirol eremuetara igarotzean, hori bera baita, hain zuzen ere, euskaraz bizitzearen esanahietako bat. Ezin dizkiogulako euskarari ukatu gorputz eta espirituaren atsedean eta gozamenari lotzen zaizkion eremu horiek. Eta hor aurrera egiteko, hiztunen konpromisoa ez ezik ezinbestekoa izango da instituziook egin behar dugun ahalegina: bitartekoak jarritz eta eredugarritasuna erakutsiz.

Euskararen bizi-indarra dugu jokoan, eremu formalez gainera, eremu ez formal horiek euskararentzat irabaztearen erronkan. Izan ere, alor horretan euskararen erabilera jauzi bat egiteak errotik eta norabide zeharo positiboan aldatuko luke hiztun asko eta askorengan, oso bereziki gazteengan, euskararekiko bizipena.

Aisialdi eta kirolaren eremuek badituzte, bestalde, berezko ezaugarri baliotsuak hizkuntza erabiltzeko ohituren aldaketari dagokienez, eta askotariko antolakuntzarako joera dute (klubak, federazioak, elkarteak, taldeak...). Nekez bilatuko genuke esparru egokiagorik gazteengan iristeko, euskararen erabilera ez formalari berebiziko bulkada emateko, partaide gazte zein ez hain gazteengan euskararantz urrats eraginkorra egiteko gogoia aktibatuz. Horra, beraz, eginkizuna.

Aukera paregabea dugu normaltasun berri baterako bidearen hastapen honetan berreskuratzen ari garen eta asmatuko ditugun harreman eta erabilera-eremu berrietarako euskara, bidelagun ez ezik, lanabes eraginkor bilakatzeko. Guztion esku dago.

Euskara prest dugu; gure gizartea, gogotsu; gure herria, erabakia hartuta. Abia gaitezen.”

Honela izan da bozketa:

Aldeko botoak: Agurtzane Solaberrieta Mesa, Beñat Larrañaga Urdanpilleta, Lur Etxeberria Gurrutxaga, Joxe Mari Iribar Zapirain, Ainhoa Arrozpide Landa, Oskar Santamaria Pikabea, Itziar Basterrika Unanue, Josune Urkola Larrarte, Mirari Azurmendi Sorazu, Carlos Pérez Fraisoli eta Francisco José (Patxi) Suárez Pérez.

Beraz, mozioa aho batez onartu da.

10.- GALDERA ETA ESKAERAK.



Usurbilgo Udala

Alkateak adierazi du abenduko plenoa abenduaren 23an izango dela eta aurretik abenduaren 16an hirigintza batzordea izango dela.

Alkateak batzaraldia bukatutzat eman du arratsaldeko 19:50etan eta bilera agiri hau jaso da, alkateak izenpetuz eta nik, idazkariak, ziurtatuz.